

Lehendakariak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu ditu

Aurten, 52 enpresek jaso dute euskara beren funtzionamenduan txertatu dutela ziurtatzen duen aitorten hau; guztira, 313 dira 2008tik jaso dutenak.

Iñigo Urkullu Lehendakariak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu ditu gaur Donostiako Kursaallean, hainbat enpresaren euskararen aldeko apustua aintzat hartuz. Aurten 52 enpresek jaso dute euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren kalitatea aitortzen duen ziurtagiri hau; 19 entitatek urrezko Bikain, 22k tartekoa den zilarrezko ziurtagiria eta 11k oinarritzko mailari dagokiona. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburu Bingen Zupiria, Hizkuntza Politika Sailburuorde Patxi Baztarrika eta Confedebaskeko Presidente Roberto Larrañaga ere izan dira, Lehendakariarekin batera, ekitaldi honetan. Aurtengo ziurtagiri berri hauek kontuan hartuta, 313 enpresa dira 2008tik aitorten hau jaso dutenak.

Ehunka pertsona elkartu dira arratsaldeko 18.30ean hasi den ekitaldi honetan. Horietako asko Bikain ziurtagiria jaso berri duten enpresetako kideak izan dira, eta Eusko Jaurlaritzako ordezkarien aintzatespena jaso dute. Ziurtagirien banaketan Bikain Ebaluatzaileen Klubeko hainbat kide ere izan dira, haiei egokitu zaie kanpo-ebaluazioa egiteko ardura eta haiek dira proiektu honen zutabeetako bat. Aurten 190 kide izan dira ebaluatze lanetan, inoizko zenbatekorik handiena; iaz baino 31 gehiago eta proiektu honen hasierako urteetako batez bestekoaren bikoitza. Guzti-guztiak musutruk egiten dute lan eta dagoeneko badira 556 partaide Ebaluatzaileen Klubean.

Goranzko joera argia

Bikain ziurtagiria jasotzen duten enpresak ere gero eta gehiago dira. Zenbakiak argi erakusten dute ziurtagiri hauek erreferentzia bilakatu direla enpresen euskararen aldeko apustua neurtzeko. Azken bi urteak izan dira enpresa gehien gehitu dituztenak ziurtagiria dutenen zerrendara: 117 entitatek lortu dute aitortzea bi urte hauetan. Goranzko joera argia da, izan ere, ziurtagirien lehen urteetako batez besteko enpresa kopurua biderkatzen ari da: lehen urtean 8 izan ziren agiria lortu zutenak, 2012an 29 entitate gehitu ziren eta 2014 beste 39. Guztira, 58.466 langile inguruk behar egiten dute Bikain ziurtagiria duten 313 enpresetan. Alde horretatik, gainera, aurrerapauso handia eman da aurten, ziurtagiria eskuratu duten 52 enpresa horiek 21.490 behargin gehitzen baitituzte.

Iñigo Urkullu Lehendakariak "jauzi" hori azpimarratu nahi izan du: "Ziurtagiria jaso duzuen 52 enpresa eta erakundeetan, guztira 21.500 pertsonak lan egiten duzue. Aurreko 8 urteetan, batzaz beste, 4.400 langile inguru biltzen zituzten Bikain eskuratzen zuten enpresek. Jauzi garbia da, notizi pozgarria".

Patxi Batzarrika sailburuordea ere pozik azaldu da lortzen ari diren emaitzekin. "Aurten 52 enpresa eta erakundeak jasoko duzue Bikain ziurtagiria. Aurten, gainera, Bikainen 9 urteko ibilbidean ezagutu dugun langile kopururik handiena biltzen dituzue 52 enpresa eta erakundeok. Hau goraka doa: urtetik urtera handiagoa da ziurtagiri publiko honen eragina euskal gizartean", adierazi du.

"2008an Bikain ziurtagiriak sortu zirenetik, 313 ziurtagiri eman ditugu, aurtengo 52 ziurtagiriak barne direla. Eskerrik asko zuoi guztioi, eta eskerrik asko, bihotzez, Bikain Ebaluatzailearen Kluba osatzen duzuen 550 adituei, eta oso bereziki aurten ebaluatzaile lanean aritu zareten lagunei. Ezinbestekoa da zuen lana. Eta eskerrik asko, baita ere, nola ez, Euskalit Fundazioari; bere lankidetzaren behar-beharrezkoa baitu Bikainek", gehitu du Batzarrikak.

Gaurko ekitaldian erakundeetako beste hainbat ordezkari ere izan dira. Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeria han izan da, eta Eusko Jaurlaritzatik, besteak beste, Osasun Sailburu Jon Darpon, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal, Justiziako sailburuorde Miren Gallastegui edota Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberria izan dira.

Arlo guztietako enpresak

Kursaalean ziurtagiria jaso duten enpresen artean badaude bi erakunde (Berrizko eta Elgoibarko udalak) zein Osakidetzako hainbat unitate daude, baita arlo guztietako enpresak ere: industria nahiz zerbitzuetakoak, garraioetakoak, hezkuntzakoak... Aurten ziurtagiria lortu duten enpresen %12a 'finantzak eta beste enpresa jarduerak' arlokoak dira, %9a hezkuntzaren mundukoak eta %8a osasunaren arlokoak. Beste esparruetakoak honela banatzen dira: kultura, %6a; 'garraioa eta merkataritza', %6a; gizarte-zerbitzuak, %5a; industria, %5a; eta administrazioa, %2a. Beraz, enpresen profila guztiz anitza da, eta Laboral Kutxa, Puntueus Fundazioa edota Guggenheim Bilbao Museoa bezalako entitateak badaude tartean. Horiek guztiek egiaztatu dute euskara txertatua dutela euren eguneroko jardueran eta kudeaketan.

Hiru maila hartzen ditu bere baitan Bikain ziurtagiriaren proiektuak: oinarritzakoa (200 puntu gutxienez); tarteko maila edo zilarrezkoa (400 puntu gutxienez) eta goi maila edo urrezkoa (700 puntu gutxienez). Enpresek egin duten ebaluazio horretan EMEk (Erreferentzia Marko Estandarrak) zehaztutako alorretan euskararen presentzia, erabilera eta, oro har, kudeaketa neurtzen da. Ebaluatzen diren alorrak hauek dira: Erakundearen komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo harremanak, barne harremanak eta hizkuntza kudeaketa.

Bikain Ziurtagiriaren zuzendaritza organoetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea batzordeburu dela, EAEko enpresarien elkarteak (CONFEBASK, SEA, CEBEK eta ADEGI), Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, hiru foru aldundiak, Euskalit, Euskaltzaindia eta EUDEL biltzen dira.

Iñigo Urkullu Lehendakariak aurrerapausoak ematen jarraitzeko deia eginez amaitu du bere hitzaldia: "Euskara erabiltzeko plaza bat eskaini eta proposatzen digu Euskararen Txantxangorriak. Zuek paparretik lantokira

eraman duzue Txantxangorria, eta ezin hobeto hauspotu duzue bere hegaldia.
Eman hegoak euskarari, enpresetan ere!".